



Esp.kodea: 2020CHOZ0007

Gaia: GALIZIA KALEAN MUGIKORTASUN
BERTIKAL SISTEMA PUBLIKO BAT
EGITEKO PROIEKTU TEKNIKOA IDAZTEKO
ZERBITZUA

Hasiera eguna: 2020/06/11

JAKINARAZPENA

Jakin dezazun, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko urriaren 1ean egindako bilkuran, Alkatetzak emandako eskurantzaren eskuordetzearen arabera, besteak beste, akordio hau hartu zuen:

“Galizia kalean mugikortasun bertikal sistema publiko bat egiteko proiektu teknikoa idazteko zerbitzua”: esleipen proposamena (2020CHOZ0007)

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Kontratazio Mahaiburuaren ondoko proposamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“GALIZIA KALEAN MUGIKORTASUN BERTIKAL SISTEMA PUBLIKO BAT EGITEKO PROIEKTU TEKNIKOA IDAZTEKO ZERBITZUA” kontratatzeko prozedura irekiaren kontratazio-mahaia 2020ko irailaren 10ean bildu zen, aurkeztutako eskaintzen proposamen ekonomikoak irekitzeko.

Onartutako eskaintza hauek izan ziren:

- ASMATU, S.L.
- GIRDER INGENIEROS, S.L.
- I-INGENIA INGENIERÍA Y ARQUITECTURA S.L.
- VAUMM ARQUITECTURA Y URBANISMO S.L.P.

Zerbitzu Teknikoek egindako txostenaren arabera, hauxe izan zen aurkeztutako proposamen desberdinek jasotako puntuazioa:

Titularra	Azterketa teknikoa	Lan programa	GUZTIRA Memoria teknikoa
ASMATU, S.L.	19,7	19,4	39,10
GIRDER INGENIEROS, S.L.	16,7	13,0	29,70
I-INGENIA INGENIERÍA Y ARQUITECTURA S.L.	20,1	9,6	29,70
VAUMM ARQUITECTURA Y URBANISMO S.L.P.	22,2	19,2	41,40

Kodea	BB20/00943	Udala	ARRASATE/MONDRAGON	
Data	2020/urr./06	CUDO	000.0055.AAAAJZNT.H.AXUg	
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAJZNT.H.AXUg			
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu				



Esp.kodea: 2020CHOZ0007

Gaia: GALIZIA KALEAN MUGIKORTASUN
BERTIKAL SISTEMA PUBLIKO BAT
EGITEKO PROIEKTU TEKNIKOA IDAZTEKO
ZERBITZUA

Hasiera eguna: 2020/06/11

Hori egin eta berehalaxe, onartutako proposamenen artxibo elektronikoak ireki ziren, egintzako helburukoak, eta emaitza hau izan zen:

Titularra	Prezioa BEZ gabe	BEZ (%21)	Prezioa BEZ barne	Prestasuna bilerak egiteko
ASMATU, S.L.	27.600,00	5.796,00	33.396,00	BAI
GIRDER INGENIEROS, S.L.	28.000,00	5.880,00	33.880,00	BAI
I-INGENIA INGENIERÍA Y ARQUITECTURA S.L.	29.828,88	6.264,06	36.092,94	BAI
VAUMM ARQUITECTURA Y URBANISMO S.L.P.	30.000,00	6.300,00	36.300,00	BAI

Ikusirik Zerbitzu Teknikoek egindako txostena, aurkeztutako memoria teknikoak aztertzen dituen, eta, bestetik, automatikoki zenbatu daitezkeen adjudikazio irizpideei dagozkien puntuak batuta, eskaintzen sailkapena hau izan zen:

		1.- Kontratuaren prezioa	2.- Txosten teknikoa	3.- Prestasuna bilerak egiteko	GUZTIRA
1	ASMATU, S.L.	48,00	39,1	6	93,10
2	VAUMM ARQUITECTURA Y URBANISMO S.L.P.	44,16	41,4	6	91,56
3	GIRDER INGENIEROS, S.L.	47,31	29,7	6	83,01
4	I-INGENIA INGENIERÍA Y ARQUITECTURA S.L.	44,41	29,7	6	80,11

Sailkapena ikusirik, Kontratazio Mahaiak, 2020ko irailaren 10ean, proposatu zuen “GALIZIA KALEAN MUGIKORTASUN BERTIKAL SISTEMA PUBLIKO BAT EGITEKO PROIEKTU TEKNIKOA IDAZTEKO ZERBITZUA” egiteko eskaintza onena “ASMATU, S.L.” enpresak egindakoa deklaratzeari, eta errekeritzea hamar egun baliodunetan behin betiko bermea jartzeko eta beharrezkoa den dokumentazio gehigarria emateko.

Ikusirik 2020ko irailaren 11an Alkateak aipatu errekerimendua egitea erabaki zuela, eta 2020ko irailaren 23an enpresak behin betiko bermea jarri zuela, 1.380,00 €koa, eta eskatutako agiriak aurkeztu zituela.

Guzti hori ikusirik, ondorengo proposamena egiten du Kontratazio Mahaiburuak:

Kodea	BB20/00943	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2020/urr./06	CUDO	000.0055.AAAAJZNT.H.AXUg
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAJZNT.H.AXUg		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu			







Esp.kodea: 2020CHOZ0007

Gaia: GALIZIA KALEAN MUGIKORTASUN
BERTIKAL SISTEMA PUBLIKO BAT
EGITEKO PROIEKTU TEKNIKOA IDAZTEKO
ZERBITZUA

Hasiera eguna: 2020/06/11

I.- “ASMATU, S.L.” enpresari adjudikatzea “GALIZIA KALEAN MUGIKORTASUN BERTIKAL SISTEMA PUBLIKO BAT EGITEKO PROIEKTU TEKNIKOA IDAZTEKO ZERBITZUA 27.600,00 €tan, BEZa sartu gabe, (33.396,00 €, BEZ barne) eta sei hilabeteko epean.

II.- Kontratu honen arduraduna Juan Antonio Urdangarin Udal Teknikaria izango da, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koa, Sektore Publikoaren Kontratuena, 62. Artikuluan aurreikusitako funtzioekin.

III.- “ASMATU, S.L.” enpresari jakinaraztea, adjudikazioaren jakinarazpen hau jaso eta hurrengo hamabost egun baliodunetan Udaletxean agertu beharko duela administrazio agirian kontratua sinatzeko.

IV.- Kontratuaren exekuzioan parte hartuko duten langileei **“Ingeniaritza-enpresen eta ikasketa teknikoetarako bulegoen hitzarmen kolektibo nazionala”** aplikatuko zaie.

V.- Adjudikazio honen iragarkia eta Kontratuaren formalizazioaren berri kontratistaren profilean argitaratzea”.

Erabaki hau behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Edozelan ere, nahi izanez gero, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu aurretik, BERRAZTERTZE ERREKURTSOA aurkeztu dezakezu; horretarako, HILABETEKOA epea duzu, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita. Bestela, haren aurka, zuzenean ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkeztu dezakezu Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, Donostian; horretarako, BI HILEKO epea duzu, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia egin dezakezu urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114 c), 123 eta 124 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera, eta uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duena, 8, 25, 46 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera.

Eta horretaz gainera, bidezkoztat jotzen baduzu, beste edozein egintza edo errekurtsio aurkeztu dezakezu.

Idazkaria

Kodea	BB20/00943	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2020/urr./06	CUDO	000.0055.AAAAJZNT.H.AXUg
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAAJZNT.H.AXUg		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			



